

55. FITXA. ARABA – Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeetan etxebizitzak birgaitzeko ekintzak finantzatzera bideratutako 2024-2025erako dirulaguntzak

Nori zuzenduta: 20.000 biztanletik beherako udalerrietan dauden 1.500 biztanletik beherako biztanle guneak dituzten Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak; toki erakunde horietan bizi diren pertsona fisikoak.

Sartzeko esteka: [Etxebizitzak birgaitzeko ekintzak finantzatzeko dirulaguntzak - egoitza \(araba.eus\)](https://araba.eus)

Erreferentziazko arauak: [Foru Gobernu Kontseiluaren 491/2024 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeetan etxebizitzak birgaitzeko ekintzak finantzatzera bideratutako dirulaguntza lerroen 2024-2025eko deialdiari](#)

Eremuak: Etxebizitza birgaitzea

Zenbatekoa: 179.982 € 2024rako eta 360.018 € 2025erako

Aurkezteko epea: 2024/09/09-2024/10/31 (23:59 arte)

Laburpena

Deialdi honen xede izango dira **kontserbaziorako, kalitatea, irisgarritasuna eta jasangarritasuna hobetzeko -energia efizientzia barne- esku hartze eta birgaitze obrak** gauzatzea xede duten jarduketak.

Toki erakundeen kasuan, birgaitutako etxebizitzak alokairurako, bitoki zuzkidurarako, genero indarkeriako egoeran dauden pertsonen ostatu emateko eta gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko erabili beharko dira.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz lagundu ahal izango dira **etxebizitzaren birgaitze integraleko edo partzialeko obra guztiak, bai fatxada eta estalkien egitura egokitzeko eta/edo birgaitzeko direnak, bai barneko bizigarritasuna eta/edo akaberak egokitzeko direnak, bai energia efizientzia hobetzeko jarduketak**, tipologia honen arabera:

1 mota. Kontserbazio eta bizigarritasun obrak: Etxebizitza eta haren instalazio pribatiboak kontserbatzeko obrak, eraikuntzaren arloan indarrean dagoen araudira egokitzeko, edo bizigarritasun

baldintzak hobetzeko.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

- Berritik egitea edo berritzea elektrizitate instalazio osoak, saneamendua, hornidura, oinarrizko hornidurak, espazioen funtzionaltasuna hobetzea, barneko airearen kalitatea hobetzea, hondakinak kudeatzeko sistemak eta abar.
- Barne banaketa aldatzea.
- Konfort akustikoa hobetzea.
- Fatxada, estalkia eta egitura.

2 mota. Energia eraginkortasuna hobetzeko obrak: Etxebizitzaren eta haren instalazio pribatiboen energia efizientziaren mailak hobetzeko obrak, aplikatzekoa den energia aurrezpeneko eta efizientziako araudira egokitzeko.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

- Instalazio hauek berritik egitea edo berritzea: berokuntza, hozketa, aireztapena, ur bero sanitarioaren ekoizpena, argiztapena, energia berriztagarriaren ekoizpena eta autokontsumoa, inguratzaile termikoa eta akustikoa, barneko airearen kalitatea.
- Isolamendu termikoa.
- Kanpoko arotzeria aldatzea.
- Leihoak eta galdarak aldatzea.

3 mota. Irisgarritasuna hobetzeko obrak: Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen arloan indarrean dagoen araudian ezarritako irisgarritasun eta diskriminaziorik ezako baldintzetara egokitzeko obrak, arkitektura oztopoak kentzeko edo zentzumen desgaituentzat egokitzeko, etxebizitzetan barne erreformak eginez edo higiezinaren elementu pribatiboetan jarduketak eginez.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

- Komunak egokitzea.
- Etxebizitzaren banaketa egokitzea arkitektura oztopoak kentzeko edo zentzumen desgaituentzat egokitzeko.

4 mota. Etxebizitzaren eta haren instalazio pribatiboen akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko obrak: Mota honetan sartuko dira etxebizitzaren barne eraberritzeekin zerikusia duten obrak, hala nola igeltserotza, eskaiola, barne arotzeria, zoruak, iturgintza eta abar, eta elektrizitate-, telefonia-, berokuntza-, gas- eta pintura-instalazio partzialak.